



LIBURUA

Lagunekin hobeto

**NIRE HARTZ HANDIA,
NIRE HARTZ TXIKIA ETA NI NEU**

MARGARITA DEL MAZO

ILUSTRAZIOAK: ROCIO BONILLA

ITZULPENA: MARI ELI ITUARTE

Mensajero, 2018 | 32 orrialde | Haurrentzat



TESTUA | XABIER ETXANIZ ERLE

Liburu honetako protagonistak, izenburuan adierazten duen bezala, bi hartz ditu. Bata handia eta bestea txikia. Eta, hain zuzen, ideia horretatik abiatzen da istorioa: “Hartz bat izateak abantaila handiak ditu, eta bi izateak... askoz gehiago!”. Irakurleak, orduan, gure neska protagonista ikusiko du hartz panpinari txano bat jartzen eta ondoko orrian hartz handiak nola jartzen dion berari txanoa.

“Nire bi hartzak toki guztietara datoz nirekin” diosku protagonistak eta, horrela, ikusi ahal izango dugu elurretan paseatzen, jolastean, arrantzan izoztutako errekan, basoko animaliak ezagutzen eta beste mila kontu egiten bere bi hartzekin batera.

Margarita del Mazok istorio sinple eta hunkigarria proposatzen digu, egunerokotasunean txertaturiko istorioa; elkarrekin, laguntzen, babesten ari diren lagunak istorioa. Eta kontakizunari ederkizunari dagokion ilustrazio tonua azaltzen zaigu Rocio Bonillaren eskutik. Pastel tonuko koloreak, xehetasun ugari, kanpoko hotzaren zuritasuna eta animalien nahiz landare apurren bizitasuna agertuko zaizkigu irudi errealista, goxo eta iradokitzaileetan.

Ez dakigu zein den protagonistaren izena, ezta behar ere; bere ikuspegia bakarrik jasotzen baitugu istorioan. Berak zer pentsatzen duen, zer sentitzen, lagun txikiaren eta handiaren ondoan. Handiaren indarrak emaniko segurtasunaren ondoan, lagun txikiak gauza ñimiñoetara hurreratzeko aukera ikusi ahal izango dugu. Bai eta gure neska protagonistak txikiari emaniko babesa askoz ere era gozo eta handiagoan nola jasotzen duen hartz handiaren aldetik ere.

Adiskidetasunaren aldeko mezua izan zitekeen liburu hau, baina amaieran irakurleak ikusi ahal izango duen bezala –liburu guztian iradokitzen dena, bestalde-, kariño kontua da, maitasuna, liburu honen gaia. Gurasoak nola babesten, nola zaintzen, nola laguntzen dion alabari. Hartz aita edo hartz ama bere kumea zainduko zukeen bezala; gure protagonistak bere hartz txikia maite duen bezala. Amaieran, hasierako ideara bueltatuz, egileak dioen bezala: “Ona da hartz bat edukitzea; gainera, nik bi dauzkat eta hori askoz hobea da”; edo guk esango genukeen bezala, ona da liburua bakarrik irakurtzea, hobea lagun batekin batera. Eta hori zure hartz handia bada, askoz hobea. ●